


Noaua!!



Maider Izagirre Milanen
izan da moda ikasten



Joseba Zubeldia Euskaltel Euskadiko txirrindularia

“Tourreko irabazlea izango da
aurtengo txirrindulari onena”

Txiriboga



Nagore, Lore, Arantxa,
Maitane, Olano, Jon,
Nerea, Igor, Jon Aizpurua,
Antton, Garazi,
Piti, Enara, Ana, Ibai,
Paulino, Txuri eta Oskar Aierbe

Eskerrrikasko guztioi
zuen laguntzagatik!!

Zuen publizitatea hemen

☎ 943 360 321
publizitatea@noaia.com



Lehiaketa

Pier Paul Berzaitz, "Lili batean kantorea"

XV. mendetik gaur arteko euskal olerkaritzak
espresio bide ederra aurkitu du Pier Paul Berzaitzen
ahotsaren bitartez. "Lili baten kantorea" diskoa
argitaratu berri du kantari zuberotarrak.

Duela gutxi, Sutegin aurkeztu zuen lan hau. Orain,
NOAUA!ko irakurleen artean, Pier Paul Berzaitzen
disko bat zozketatu nahi dugu. E-mail bat idatzi
eta uztailaren 15ean egingo dugun zozketan
hartuko duzu parte. Animo!



Bidali e-maila erredakzioa@noaia.com.

Postaz Bordaberri 3 Eguzkitzaldea -20170 USURBIL(Gipuzkoa).

Badok Amairu !!

Juanjo Zapirain: "Gehiegi jateko ohitura txarra daukat"

Juanjo Zapirain "Xapi" bezala ezagutzen dute Aginagan. Kirola da bere afizioetako bat baina berak esan ohi duenez, egitea baino gehiago, ikustea atsegin du.

1. JAKIRIK GOGOKOENA.

Denak.

2. OHITURA TXARREN BAT.

Gehiegi jatea.

3. ZER GORDETZEN DUZU SAKELAN?

Mukizapia.

4. ZERTAN BERPIZTUKO ZINATEKE?

Kirolari on batengan.

5. ZERI DIOZU BELDURRA?

Ezagutzen ez dudan zerbaiti.

6. MIRESTEN DUZUN PERTSONA.

Anonimo asko.

7. EZIN ZAITEZKE BIZI...

Lanik egin gabe.

8. EGINDAKO EROKERIA HANDIENA.

Gogoratzen ez dudanen bat.

9. LIBURU BAT.

"Papillon".

10. FILM BAT.

Ez naiz oso film zalea.

11. LEKU BAT.

Momentuaren arabera.



12. HERRIKO LEKURIK EDERRENA.

Ibai ertza.

13. URTARO BAT.

Udaberria.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaerri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Tlf: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zaloa Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Danberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.

Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Nerea Korta.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORJETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZeko ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

HAUR TXOKOAK, GIRO EDERREAN _____ **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN _____ **6. OR.**

MAIDER IZAGIRREREKIN SOLASEAN _____ **8. OR.**

Bartzelonan bi urte egin zituen moda ikasketak egiten. Azken ikasturtea Milanen pasa du. Italiako bizipenen berri eman digu Maiderrek.



JOSEBA ZUBELDIA TXIRRINDULARIA _____ **10. OR.**

LIBIAKO ARRAUNLARI USURBILDARRAK _____ **12. OR.**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Argentinan egindako margolanak bildu ditu Zumetak "Negua 2005-2006" izeneko erakusketan

Jose Luis Zumeta margolaria-
ren erakusketa ekainaren
erdialdean inauguratu zen
Ekain Arte Lanak galerian (Iñigo
kalea 4, Donostiako Alde Zaharra).
"Negua 2005-2006" izeneko erakus-
ketan, Buenos Airesen (Argentina)
egindako azken margoak bildu ditu
Zumetak. Erakusketa zabalik egongo
da datorren uztailearen 31 arte.

Beste behin ere, abstrakzioa da
nagusi eta koloreek egiten dituzte for-

mak. Honakoan, ordea, neurri txikia-
goko margolanak egin ditu,
0,65x0,50 neurrikoak, eta oliotik ten-
peretara igaro da. Praktikotasunagatik
egin du aldaketa, ez litzatekeelako
erraza maletan sartzea Zumetak mar-
gotu ohi dituen oliotzarrak.

Erakusketa: 'Negua 2005-2006'.

Artista: Jose Luis Zumeta.

Lekua: Ekain Arte Lanak Galeria,
Donostiako Alde Zaharreko Iñigo
kaleko 4an. Uztailearen 31 arte.



NEGUA ARGENTINAN EGIN ZUEN
ZUMETAK. ERAKUSKETAKO MARGO-
LANAK GARAI HORRETAKOAK DIRA.

Elkartasuna Etorkizuna jaia Baigorri ospatuko da aurten

Aurtengo Elkartasuna Etorki-
zuna jaia irailaren 24an ospatu-
ko da Nafarroa Beherako Baigorri.
Dagoeneko, jai horretarako antolaketa
lanetan hasiak dira Usurbilgo
Nafartarrak taldea, Baigorriko
Basaizea elkarte, Tuterako Beterri
elkarte, Basauriko Sustriak,
Iruñeako Orreaga, Arabako Euskara
Añana Mingainean eta Urdiñarbeko
Bilxokoa.

Kultur elkarte hauen topaketarako



egitaraua prestatzen ari dira eta data
gerturatu ahala, berri zehatzagoak
eskainiko dizkigute.

Datorren asteko NOAUA! eta gero, oporrak

Datorren asteko alea uztailearen
21eko datarekin argitaratuko
dugu. Ale hori plazaratu eta iraila arte
ez da NOAUA! gehiagorik izango.
Beraz, zorion-agur, ohar, ika-mika,
argazki edo bestelakorik baduzu,
uztailearen 17a baino lehen ekarri.

Dena den, uztailearen 28a arte egon-
go gara lanean NOAUA!ko egoitzan.
Abuztuaren 28an bueltatuko gara
oporretatik.



BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

I lts r tz

Mugikorra: 649435475
649435476
943 363370- 361439

JOSUE
ARANZAZISTROKI

IGELTSEKITZA
eta
PINTURA

Juan Jose enea, 6 Kalegar
Telf: 606 37 21 05

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

Haur txokoak, giro ederrean

Uda etorri den une berean, iritsi dira haur txokoak. Eskola garaia amaitzean haurrek jolaserako gogo biziz jarraitu ohi dute. Haur txokoena, hain zuzen, uda lagun artean pasatzeko aukera egokia da. Akaso horregatik, aurtengo eskaintza inoizko handiena izan da. Zubietan, Aginagan eta Usurbilen haur taldetxo ezberdinak sortu dira.

Urtero egiten dira haur txokoak Zubietan. Hauek izaten dira, gainera, abuztuan jarraipena izaten duten bakarrak. Baina aurtun, haurren taldeaz gain, gaztetxoen taldea ere osatu da. Zazpi gaztetxoko taldea, ekintzak egiteko nahikoa dena. Talde honetako haurrak bederatzi urtetik gorakoak izanik, errazagoa da hauekin irteerak egitea. Gu beraiekin egondako egunean, hain zuzen, hondartzara joateko prest zeuden. Bestalde, hamazazpi haur txiki dituzte Zubietan eta hauek asko direnez, mahai jolasak, eskulanak eta Araetako parkera irteerak egin dituzte eta San Ferminak ere ospatu dituzte, besteak beste.

Aginagan, lehen aldiz

Aginagan, aldiz, lehen urtea da haur txokoak egiten direna. Hogeita lau haur bildu dira eta frontoi inguruan egiten dituzte beren jolasak. Pirataren eguna ospatu dute jada, eta San Estebanera irteera bat ere egin dute. Gordeketan, harrapaketan eta beste joku askotan ibiltzen dira. Gu han izandako egunean, lokotx-bilketa eta zaku-patataren arteko zerbaitetan ari ziren jolasean.

Kaxkoan, 75 gaztetxo

Kaxkoan, bestalde, Uda Jolasen parte hartzeko aukera daukate haurrek. Haur kopuru handiena bertan biltzen da, guztira hirurogeitahamabost. Ez da erraza hainbeste haur gobernatzea, baina begirale asko daude beraien zaintzan. Jadantik hondartzara joan dira, Kalezarren ibili dira, San Fermin eguna ospatu dute eta herri kiroletan aritu dira.



ZUBIETAN, GUZTIRA, 25 HAUR DAUDE HAUR TXOKOETAN.



AGINAGAKO TXOKOETAN HAURRAK HOGEITALAU DIRA.



HAUR KOPURU HANDIENA UDA JOLASEKOA, 75 DIRA BILDU DITUZTENAK.

TXOKOALDE

ALOÑA LOIDI

Festen aurrekontuak



Ikusi al zenuten NOAUAlko ale honen aurrekontu argitaratu zuten Santixabeletako gastuen zerrenda? Ez al zaizue ikaragarria eta zirrargarria iruditzen 90.000 eurotik goragokoa den zifra hori Usurbilgo festetarako? Egia esan, aurtengo festetan Udalak asko gastatu duen arren, jendea oso gustura ibili dela dirudi, izan ere, heldu zein gazteek, festek iraun duten egun guztietan izan dute dibertitzeko aukera. Nire ikuspuntutik, festa onak izan dira, originalak eta konpletoak.

Honekin guztiarekin, nik beste puntu batera iritsi nahi dut. Udalak zergatik dauka hainbeste diru herriko festak antolatzeke eta hain gutxi auzokoetakoak antolatzeke? San Estebanetako festak moldatzeko, antolatzailak 6.000 eurotara iristen ez den zifrarekin konformatu behar izaten dute eta oso zaila edo batzuetan ezinezkoa gertatzen da gastu guztiak diru horrekin eta festetan jartzen den tabernak (eta beste zenbait diru-sarrerek) ematen dutenarekin ordaintzea.

Informatu ez banaiz ere, pentsatzen dut arazo hau Usurbilgo beste auzoetan ere emango da eta honekin ez dut esan nahi Santixabeletako aurrekontuak baxuagoa izan beharko lukeenik, baina bai Usurbilgo auzoetakoak eskuzabalagoak izan beharko luketela.

Aurtengo festek horrela beharko dute baina ea hurrengo urtetarako auzoetako festen gastuak estaltzeko diru gehixeago luzatzen duen Udalak.

KALEBERRI

ENEKO HARREGUY

Esan beharra



Ze meritua duten egunak joan, asteak etorri egunkarietako zutabeak idazten dituztenek. Idazle gutxi batzuk ezik, ez ditut besteak egunero irakurtzen; baina egunero lerrotu behar dira hogei-eren bat lerro, eh!?

Irakurle eta idazle profesionala ez naizen aldetik ez dakit zehatz-mehatz, susmoak baino ez, baina pentsatzen dut askok idatziko dituztela betelan mordoxka, ezta? Geroni kostatzen zaigu, askotan, astekari honetako lerroak idaztea! Eta bi hilabete baino ez zaigu egokitzen.

Zeri buruz idatzi behar dut: gozatu berri dugun xantixabelez? Oilasko biltzaile, buruhandi, xexenak, tiobiboak, jubilatutako bazkari, kontzertu, btk...?

Jaiak bata bestearen atzetik direla, eguraldi eguzkitsuak ditugula eta oporren emozioak bizipoza dakarkigula? Bidaien aberastasunaz? Uste baino indar handiagoz hizketagai dira Fernando Alonso asturiarra eta surfa. Ezer berririk gaineratuko ez dudalakoan ez noa jarraitzera.

Puntuak. Alde onak eta txarrak. Zigor zerrenda baten aurrean bidezkoak ala ez-bidezkoak diren ondorioak. Bakoitzak bere inguruarekin askotan izan duen hizketaldia. Zer gehiago berria esan dezaket?

Batzutan ez naizela gai pentsatzen dut.

Bejondaiela zutabegileei; eta kronistei ere bai, zergatik ez?

KALEZAR

ALOÑA PULIDO

Herriko festen usaia auzoan



Kalezarren ere herriko festen giroa sentitu dugu, izan ere ostiralean oilasko biltzaileak bertatik pasa eta auzotar bat baino gehiago ohetik altxarazi baitzuten. Igandean, berriz, hau da Santixabel egunean, goizeko 11:00ak aldera ni ohean nengola (bezperan parranda eginda, noski!) berriro ere ohetik jaiki behar izan nuen, oraingoan "zanpantzarak" izan ziren errudunak! Hala ere ez nintzen jaikitzeaz damutu, izan ere oso ikuskizun polita izan baitzen, Saizarraldeko belazean barrena ibili ziren.

Orain arte ez nintzen zanpantzarrek duten xarmaz jabetu eta egia esan gauza ederra da zanpantzarrek beren ardi-larraz eginiko estalki, "txuntxurro" eta buruan daramatzaten kukurutxo koloredunak jantzirik eta ateratzen duten hotsaz kalejira eginez ikustea. Gainera euskal kulturaren zati dira eta euskaldun garen bezala hau mirestu beharra dugu. Hau guztia esan ondoren, orain ez dut inongo dudarik egunen batean Ihauteriak baino lehenxeago Zubietatik Iturenera egiten den zanpantzarren kalejira ikustera joango naizela.

Oraingo honetan agian nire hitzekin pixka bat aspertu egingo zineten baina lehen esan bezala gure kulturaren zati diren zanpantzarrengan zuek ere pixka bat erreparatzea izan da nire asmoa.

ATXEGALDE

MARIA JESUS URBIETA

Auzotik begirada bat



Aurrera begiratura lehendabizi, zoriondu nahi ditut txoko honetatik nire ilobak diren Gorka eta Nerea. Neska txiki bat izan berri dute hilaren 5ean, beraz, ongi etorri Maren.

Era berean, aurtengo Santixabeletako festak antolatu dituen taldeari beren lana goraipatu beharrean gara. Auzokideen artean entzuterik izan dudana bezala, aurtengo festak oso atseginak izan dira. Aukera zabala izan da bai gazte eta helduentzat; Santixabel eguneko meza nagusia ere ederra izan zen. Irrii Abesbatza, organista bikain batez lagunduta eta Kintin bertsolariaren trebetasunez osatua.

Aita Santua ere gertu dabilkigu, Valentzian hain zuzen ere, familiak babesteko jai giroan murgilduta omen dabil. Ea ba ondo ateratzen den bere nahia. Jende multzo handia du bere atzetik eta bere bisita famili-proiektua aurrera ateratzeko bada, aurrera. Euskaldunon artetik ere jendea hurbildu da beregana.

Gaiaz aldatuz, auzoan zakar ontziak edo kontainerrak jarri dizkigute, bazen garaia eta eskertzekoa da. Orain, ondo egongo litzateke zakar poltsak barrura sartzea zeren bestela, auzoko katuen mende gelditu litezke.

Besterik gabe ondo pasa udako oporrak.

SANTUENEA

ALEX TELLO

Idazle ezezagunak



2006ko uztailan, oraingoan berriro Santuenetik artikulua edo kronika idaztea paratu zait. Zer esan? Zertarako? Nola? ...?

Gaurkoan honela hasten banaiz, jada zer esaterik ez edo irudimena agortu zaidalako izango da... Deus esateko nahiago ez idatzi, horretarako hitz eginez nahikoa (eta soberan) baitut.

Baina, zein da tarte honen funtzioa? Auzoaren bizitzaz berri eman, txoko honetan bizitzen segitzen dudala irudikatu edo, eta... beharbada, irakurlearen interesa elikatu.

2.600 aleetan, lerro hauek (nire aurpegiarekin batera) herriko etxe guztietara zabalduko dira. Zalantzarik gabe, idatzirikoaz baino, idatzi izanagatik jakingo da ale hone tan parte hartzen nagoela.

2004an hasi nintzen Santuenetik idazten eta orain arte hamaika kronika idatzi ditut. NOAUA!k duen oihartzuna jakinik, orain artean idatzitakoaz, lau lagun izan dira nolabaiteko aipamen jatorren bat egin didatenak. Kuriosoa ezta? Nik ere, urte hauetan beste idazleei ez diet ezer esan (eta batzuen lerroak eduki eta forma onekoak iruditzen zaizkit) kuriosoa ere, ez da hala? Baina, idazten dugunoi Zer esan? Zertarako? Nola? ... Zergatik?

URDAIAGA

ALAZNE BEGIRISTAIN

Larros bat du Usurbilek...



Udan sartuak gauden arren, badirudi aurtengoan, momentuz behintzat ez duela indarrean hasteko gogorik. Urtaro hau gogoko duenak; beroa gustatzen zaiolako, hondartzara joatea gogoko duelako, haserretzen hasia dago, beste batzuk aldiz gustura egongo dira.

Gu, nola ez, urte sasoi honetan gure auzoko festan antolaketetan murgildurik gaude. Programaren berri izango duzue bere garaian baina azken bileran gure auzoko abestiaz hitz egiten egon ginen. Guk gure garaian ikasi genuen baina ez dakigu gaur egun jendeak gogoan duen edo gaztetxoek ba ote dakiten. Hori dela eta, festei begira motorrak berotuz eta tartetxo hau aprobatxatuz, abestiaren letra idatziko dizuet hemen jarraian:

Larros bat du Usurbilek
politena, politena
ta zera zu Urdaiaga
bihotzeko San Esteban

Zu zaitugu gure izar
gure poz, gure atsedean
ta zuri eginez irrifar
aurkitutzen naiz hemen.

Mendiko tontor batean
hortxe zaude irrifarrez
Andatza da zure babes
ta Usurbil dezu aurrez

Bihotza ostu didazu
utzirik epel ta xamur
nerekin gordeko zaitut
ez dizut egingo agur

(Doinua: Benito Lertxundiren "Lorettoa")

AGINAGA

ANE MANZISIDOR

San Praixkuak prestatzen

Berriz ere hemen natorkizue Aginaga aldeko berri emateko prest. Azken aste hauetan, ohiko moduan, gure herri honetan ez da aparteko ezer gertatu. Uda iristearekin batera, ikasleok hartu ditugu oporrak. Hainbatek festaz festa ongi pasatzeko erabiliko ditu eta beste batzuk, lan piska bat egin eta sos batzuk lortzeko.

Aipatu behar azken aldiz idatzi dudaneko gaiak ere, hau da, txokoez. Aurtun lehen aldiz antolatutako txoko hauek arrakasta handia izan dute eta esan beharra dago, goizez bada ere, honek pixka bat alaitzen duela frontoi inguru hori, eta ez da gutxi.

Bestalde, aipatu behar, dagoeneko hainbat auzo eta herrietako festak hasi direla, San Juanak eta Santixabelak pasa ziren.

Baina San Praixkuak antolatzen hasteko garaia iritsi zaigu guri ere. Hurrengo astelehenean, uztailaren 17an lehenengo bilera egingo dugu iluntzeko 21:00etan. Gazte nahiz heldu, hemendik guztioi gonbidatzen zaituztet bilera honetara. Azken batean, denon gustuko festak antolatzea baita helburua eta adin ezberdinetako jendea elkartuz gero, helburu hori gauzatzea errazagoa izango baita.



ZUBIETA

PELLO ARANBURU

Ibaiko kapitainak

Hiri handian hazitako batentzat gozamina da Zubieta bezalako leku batean bizitzea, zelai berdeak, muino koskorak, ibaiak... Egia da, hala ere, daukagun presio eraikitzaileak ez digula luze utziko honetatik disfrutatzen. Baina bitartean...

Kontua da ibaiak gozatzeko Amerikoei baltsa bat egin dutela –beraiek bakarrik disfrutatzen– eta pentsatu dugu Irubietakoak ez garea gutxiago. Gainera, tartean daukagu Getaria –Jose Jabier–, munduko zazpi itsasoetan zaildutako kapitaina. Eta neroni ere banago, behin Aar ibaian bainatutakoa.

Beraz, kontua da gu ere prest gaudela baltsa bat egin eta erronka jotzeko Amerikoei, eta beste Zubietako baltsadun inori: baietz gu aurrea iritsi Alliriko zubira Lasarteko zubitik abiatuta. Lasterketa hau Zubietako festetan jokatu litzateke, eta baltsek norberak egindakoak beharko lukete. Ea Lertxundikoak, Barazarkoak eta besteak animatzen diren...

Ahal dugun bitartean balia dezagun ibaia, jolas dezagun berarekin, hortxe dago... Behin, orain bi edo hiru urte, etorri ziren etxera andrearen urrutiko ahaide batzuk, Valentzian edo bizi zirenak, artean ezagutzen ez genituenak. Etxea erakutsi eta legezko kafeak eta pastak elkarrekin hartu eta gero, mesede bat eskatu ziguten: ibaia ikusi nahi zuten. Haiekin joan ginen ibaia ikustera. Harrituta ginen gu, ibaia nola ederresten zuten ikusita. Que bonitos son los rios. Eta beste batek segitu zuen: Y este, además, lleva agua...



Maider Izagirre

“Moda txiki-txikitatik egin nahi izan dut”

Urtarrilean Nora Izagirre moda diseinatzailea elkarrrizketatu genuen NOAUA!n. Maider Izagirrek ere gustuko du moda mundua. Nora ez bezala, Maider hasi berria da modaren diseinuan. Azken ikasturtea eta proiektua Milanen egin berri ditu. Esperientzia oso ona izan dela dio Maiderrek, baina era berean gauza gogor asko bizitzea tokatu zaiola adierazi digu. Dena den, bere burua gehiago ezagutzeko aukera izan duela eta jendea gehiago baloratzen ikasi duela aitortu digu.



ARROPA TRADIZIONALEN EZAUGARRIAK GAUR EGUNGO JANZKERARA EGOKITU DITU MAIDERREK. PROIEKTUA ITALIERAZ AURKEZTU ZUEN.

NOAUA! Moda diseinatzaile izateko ikasketak egiten aritu zara, ezta?

Maider Izagirre. Bartzelonan hasi nintzen. Lehenengo bi urteak han egin nituen. Eta gero Milanera joateko aukera eman zidaten. Onartu nuen eta berez otsailean buelta egin behar nuen, baina konbentzitu egin ninduten eta Milanen jarraitu nuen. Pixka bat gehixeago ordainduta eta urte guztia han pasata, titulua Milanen lortuko nuelakoan. Baina ez nago oso gustura horrekin. Hasieran esan zidaten asko lagunduko nindutela. Lanak gazteleraz aurkeztu zituzten hasieran. Baina behin tesia egiteko matrikula ordaindu eta gero, oso tratu txarra jaso dut.

N. Hemen horrelako ikasketak egiteko aukerarik ez da, ezta?

M. I. Ez dago eta penagarria da. Izan ere, nik moda txiki-txikitatik egin nahi izan dut, eta UBI bukatze-

an moda egin nahi nuen, baina Bartzelonakoa zen aukera bakarra. Eta etxean esan zidaten: “hemezortzi urte dituzu, txori pila bat buruan eta hara joaten bazara ederra egingo duzu”. Eta eskerrak ez nintzela joan.

Barne-diseinuari ekin nion. Lehen hiru kurtsoak Donostian egin nituen, baina eskola itxi egin zuten eta proiektua Irunen egin nuen. Hori egin eta lanean hasi behar nuen. Baina nik oraindik moda-ikasketak egin nahi nituen. Aitari esan nion, “beno, beste hiru urte eta gero jubilaria zioa nire kontura”. Orain erantzun egin behar dut, baina ez dakit, ikusiko dugu.

N. Zer moduz Milango esperientzia?

M. I. Hasieran ea zer gertatzen zen

ikustera joan nintzen eta ikaratu egin nintzen. Pentsatzen nuen “ba, italiara gazteleraren antzekoa da”, eta iristean ez nuen ezer ulertzen, baina lehenengo bi hilabeteetan izan zen hori. Hirugarrengorako ulergarri egiten zaizu, eta laugarrengotik aurrera hitz egiten hasten zara eta dena ulertzen zaizu. Nik nire alde dudana da oso adierazkorra naizela. Hasieran uni-bertsitateko idazkaritzara joan eta hangok gazteleraz egiten zidan. Lan bat ere gazteleraz aurkeztu utzi zidaten. Baina behin tesia ordaindu nuen, azkeneko astean esan zidaten hogeit hamar orri idatzi behar nituela italiaraz nire proiektua esplikatzen. Gauza bat da hitz egitea, baina bestea idaztea! Idazkera oso ezberdina da, ez da erraza.

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

Zendoia



Kale Nagusia 3b · 943 37 40 71

“Monopolio asko dago moda munduan”

NOAUA! Italiar bizimodura ondo egokitu al zinen?

M. I. Janaria, hasteko, oso ezberdina da. Berez oso bariatua daukate baina azkenean beti berdina jaten dute, pizza eta pasta. Eta pixka bat nazkatu egin naiz, hemengo txuleta faltan bota dut. Gero, aperitiboa esaten dena daukate. 18:30ak edo 19:00ak aldera joaten dira tabernetara, kubata bat hartu eta janaria daukate mahai gainean eta hori jaten dute. Hartzen duzuna hartzen duzula, zazpi euro dira. Beno, batzuetan bost, besteetan bederatzi. Hori polita zen, gustatu zitzaidan.

MAIDER IZAGIRRE

Arropa tradizionalen inguruan osatu du ikasketa-proiektua

N. Bakarrik joan al zinen?

M. I. Bai, Bartzelonatik beste neska bat ere bazetorren, eskolatik bistaz ezagutzen nuena, eta azkeneko egunean esan zidaten berarekin nindoala. Gero nire lagun bihurtu zen. Baina azkenean bakoitzak bere bidea egin dugu. Hasieran batera bizi ginen, baina gure etxea oso arraroa zen: nagusiak parean bizi ziren, guk logela berdinean egiten genuen lo eta goian bizi zen beste bikote bat gure sukalde-tik sartzen zen nahi zuenean. Erre egin nintzen eta alde egin nuen. Etxe zahar, itsusi eta garesti bat aurkitu nuen, italiar batekin batera. Harekin italiarrez, “per forza” esaten duten bezala, egin

beharra neukan, eta beno, bakarrik gusturago egon naiz. Hasieran jendea beti inguruan nuen, bakean ez zidatela uzten. Eta gero autista fase bat pasa nuen.

N. Zeren inguruko proiektua egin duzu Italian?

M. I. Hasieran, Euskal Herrian dagoen torturaz egiten hasi nintzen. Baina planteatu behar nuen modura planteatuta, nire teilatuari harriak botako nizkion, justu kontrakoa ulertuko baitzen. Orduan gai azaldu erabaki nuen. Eta arropa tradizioaletan oinarritu nintzen. Saiatu nintzen Euskal Herria eta Espainiako ohituren arteko ezberdintasuna erakusten. Baten batek Euskal Herria eta Espainiaren arteko konfliktorearen arrazoiak nahi baditu, nik gutxienez kultura aldetik arrazoi bat eman dut.

N. Eta orain, zer asmo duzu?

M. I. Beno, kontatu ez dudana da zerbait uko egin niola bertan. Praktikak egiteko aukera izan nuen han bertan. Lanean hasi nintzen eta kontratua sinatu behar zen. Baina hartu ninduen gizona pixka bat harroa zen, neskazale itxura handiarekin. Lanean zegoen giroa ere... Lanean geunden guztiak ilehoriak ginen, ile luzedunak, mutilak ez zituzten onartzen lanean... Pixka bat arraroa zen. Oporrak noiz ziren galdetzean ezin zidala esan erantzun zidan eta ni etxera etortzeko desiratzen. Kontraturako behar nuela esatean esan zidan oporrik ez zegoela. Etxearen kontratua iraila hasierara arte neukan, eta berak esan zidan iraila amaiera arte geratu behar nuela. Eta ez zidaten batere ordaintzen. Hori ikusita, neukan itobeharra



KURTZO OSOA EGIN DU MILANEN
ETA PROIEKTUA BERTAN
AURKEZTU DU.

rekin, azken hiru hilabetetan pixka bat autista nintzela eta etxera bueltatzeko desiratzen egonda, azkenean utzi egin nuen lan hura. Agian nire aukera zen, Milanen praktikak egitea garrantzitsua da. Baina jada psikologikoa zen, edo lana edo ni. Orain pixka bat oporretan segi nahi dut, irailera arte. Egia esan pixka bat beldurtzen nau pentsatzen jartzeak. Argi daukat ezin dudala nire aldetik denda bat hartu, ez daukat dirurik eta asko arriskatzeko iruditzen zait. Monopolio asko dago eta zu gauza txiki-txiki bat zara. Niri, neurekoia izanda, gustatuko litzaidake horietako monopolio batean sartzea eta hilabete bukaeran soldata finko bat izatea.

NEREA KORTA

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tf 36 21 64
USURBIL

txirriStra
KONTSEJU ZAHARRA 13
943 360 400
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

Patri Jatetxea
K/nagusia 14. © 943 362 725

Joseba Zubeldia Euskaltel Euskadiko txirrindularia “Azken bi urteotan, mendian gora asko hobetu du Haimarrek”

Ustezko dopin kasuek guztiz baldintzatu dute aurtengo Tourra. “Puerto” ikerketa delakoak goitik behera astindu zuen txirrindularitza. Horren ondorioz, faborito nagusiek etxerako bidea hartu behar izan zuten. Hala ere, Josebak argi dauka: “Tourreko irabazlea izango da aurtengo txirrindulari onena”. Hantxe du anai zaharra, Haimar Zubeldia. Anaiaz, Tourraz, dopin kasuetaz eta txirrindularitzaz solasaldi polita izan genuen San Estebanen Josebarekin, itzaleko lana egitera ohituta dagoen txirrindulariarekin.

Maiatzean eta ekainean ondo ibiltzea zen Josebaren helburua. “Maiatza hasieran Alcobendasen korritu nuen eta gero Kataluniako Itzulian izan nintzen, baina ez nintzen ondo ibili bi lasterketa horietan. Birus bat harrapatu nuen eta ez nintzen ondo ibili”, adierazi digu Josebak. Euskal Bizikletan parte hartzeko asmoa ere bazuen baina birusak jota, taldetik kanpo geratu zen.

Espainiako Itzulia buruan

Espainiako Itzuliarekin amesten du orain Josebak: “uztailaren 30ean Hamburgon (Alemania) hasiko naiz berriz lehian, klasika batean. Segidan, Alemaniako Itzulian izango naiz eta ordurako nire sasoirik onenean egon nahi dut, Espainiako Itzuliko taldean sartu ahal izateko”.

Gonzalez de Galdeanoren ekarpena

Azken bi denboraldietan kritika ugari jaso ditu Euskaltel Euskadik. Taldearen



ESPAINIAKO ITZULIAN PARTE HARTZEA DA JOSEBAREN HELBURUA.

maila hobetu asmoz, denboraldi hasieran Igor Gonzalez de Galdeano txirrindulari ohia fitxatu zuen talde laranjak. Euskaltel Euskadiko zuzendari teknikoa izendatu zuten Igor Gonzalez de Galdeano eta taldeari aire berria eman diola esan daiteke.

JOSEBA ZUBELDIA

“Julian Gorospek gauza onak egin ditu, urte hauetan taldea aurrera ateratzea lortu baitu”

Joseba ere iritzi berekoa da: “jarrera esijentea du eta nik uste dut behar zela horrelako zerbait. Julian Gorospek gauza onak ere baditu, ez diot ezer aurrepigitzen, urte hauetan taldea aurrera ateratzea lortu baitu”, aitortu digu Joseba Zubeldiak.

Esan dugu. Espainiako Itzulia du Josebak buruan. Baina zaletu guztien begietan, Tourra besterik ez da egunotan. Hantxe da Josebaren anaia, Haimar. Zubeldiatarren etxean beste konturik ez da. Josebak, gainera, badauki Tourra dela Haimarrentzat lasterketarik onena: “fondista handia da Haimar, eta gainera uztailean ondo ibili ohi da”.

Dena den, ez zen Frantziara abiatu une gozoenean. “Euskal Bizikletan ondo ibili nahi zuen Haimarrek baina ez zuen sasoi-puntu hori lortu, hala ere uste dut etorriko zaiola. Azken bi urteotan mendian gora asko hobetu du. Ondo ibili zen Tour hartan baino gehiago igotzen du orain. Erlojuaren aurkako lasterketetan agian zerbait galdu du, baina mendian hobetu duela uste dut”, dio Josebak, Haimarren anaia.

“Bi-hiru lider ditugu taldean baina besteok ere hor egon behar dugu”

Haimar Zubeldia eta Iban Mayo. Besterik ez da zaletu askoren ahotan. Joseba Zubeldia, ordea, gainontzeko taldeki-deentzat lan egitera ohituta dagoen txirrindularia da. Badaki zer den itzaleko lana egitea. Helmugara iritsi eta loreak beste batzuen eskuetan ikustea. Horregatik, gainerako taldekideen lana nabarmentzen lehena da Joseba.

San Estebango txirrindulari honek titularretan azaltzen ez diren izen horiek aipatu dizkigu. Isasirena, esate baterako. Hirugarren helmugaratu zen Tourreko bosgarren etapan: “nik uste dut ez zaio-la garrantzia handiegirik eman. Hirugarren postua Tourreko sprint batean! Kontuan izan, gainera, Isasi ez dagoela sprintetarako bakarrik, Mayok edo Haimarrek zulaturen bat badute, Isasik beraien aldamenen egon behar du. Unai Etxeberria ere, bi ihesalditan egon da. Azkenean, Igor Gonzalez de Galdeanok eskatzen diguna hori da. Bai, bi-hiru lider ditugu taldean, baina besteok ere hor egon behar dugu”, Josebak esana.

“Puerto” ikerketa

Hasieran aipatu dugun bezala, “Puerto” ikerketako sumarioak baldintzatu du guztiz aurtengo Tourra. Josebak, hala ere, argi dauka: “Aurtengo

Tourra irabaziko duena izango da gaur egungo txirrindulari onena”. Kirol sakrifikatua da txirrindularitza. Are gehiago, Tourra bezalako lasterketa. “Guk gauza asko hartzen ditugula dio jendeak, baina ez dira konturatzen gure osasuna zein arrisku egoeran dagoen. Adibidez, berrehun kilometroko etapak direnean, eta bizpahiru segidan egiten ditugunean zer esanik ez, gorputza ahul geratzen da, eta edozein birus harrapatzea oso erraza da”.

Hala ere, kontrolak eta horrelakoak sustatzen lehenak txirrindulariak izan dira. “Ematen du gu dopinarenatik ibiltzen garela. Ez da ikusten gure eguneroko lana, gure sakrifizioa. Lasterketetan kontrolak daude eta pasatzen badira, zerbaitengatik izango da. Gu izan gara beti kontrolak jartzeko lehenengo pausua eman dugunak, baina konturatzen hasi gara agian kalte ere egin diogula horrekin gure buruari”, azaldu digu Joseba Zubeldiak. Beste kirolak ikertzen hasiko balira, seguru antzeko zerbait aterako zela, alegia.

Honetan guztian frantziarrek izan duten jarreraz ere hitz egin digu Josebak: “Frantsesak izan dira “Puerto” ikerketarekin gehien poztu direnak. Baina ez dute ahaztu behar 1998an eman zen kasu latzena euren izan zela, Festina taldearena”.

IMANOL UBEDA



HAIMAR ZUBELDIK LAN TXUKUNA
OSATU NAHI DU TOURREAN.

Uztailaren 23an Elbarrituen Gipuzkoako Txapelketa

Amador Granadoren ekimenez, txirrindulari elbarrituentzako lehen criterium-a jokatu zen iaz Usurbilen. Aurten uztailaren 23an egingo da. Gainera, Gipuzkoako Txapelketa ere jokoan izango da. Datorren alean emango ditugu xehetasun gehiago.

Hiru usurbildar Alemaniako Roth hiriko triatloian

Santxabel egunean lagun hauek ez ziren herrian. Alemanian zeuden. Ez turistarena egiten. Usurbildarrak parrandan zeuden bitartean, lagun hauek Alemaniako Roth hiriko triatloi ezagunean hartu zuten parte. 3,8 km osatu behar zen igeri, 180 km bizikletan eta 42 km korrika. Jose Mari Otamendik lan txukuna osatu zuen. 383. postuan helmugaratu zen.

3.000 kirolari baino gehiago bildu ziren Roth-eko triatloia iretean. Usurbildarren artean, lehena, Jose Mari Otamendi izan zen. 10 ordu, 31 minutu eta 11 segundotan osatu zuen ibilbidea. 383. helmugaratu zen. Peio Sasiain 1043. postuan iritsi zen helmugara eta 11 ordu, 41 minutu eta 50 segundo behar izan zituen. Jose Manuel Algorta, aldiz, 12 ordu, 37 minutu eta 55 segundo-



tan osatu zuen zirkuitua (1437. helmugaratu zen).

Lehen ikurrina lehenengo estropadan

Sanpedrotarra Arraun Elkarteko traineruan dabiltzan usurbildarrek beraien arraun ibilbideko lehenengo "ikurrina" lortu zuten pasa den igandean. KAE Ligako (Kantauriko Arraun Elkarteko liga) lehen estropada etxean izan zuten, Pasai San Pedroko uretan eta azken urteetako sakrifizioen ondoren garai-penaz gozatzeko aukera izan zuten San Pedroko traineruan dabiltzan Alex Udabe, Berdaitz Larrarte, Iñaki Portularrume eta Urko Manterola usurbildarrek.

Poza zen nagusi San Pedroko "Libia" ontzian. Azken urteetan garai-penik lortu gabea zen Pasaiako trainerru historiko hau eta aurtengo denboraldiko lehenengo estropada nahikoa izan dute aurreko denboraldietan lortu ez zutena eskuratzeko: arraun munduan hain preziatua den "ikurrina".

Uretan jaso zuten Pasai San Pedroko XVII. Ikurrina. Ramon Erostarbe patrioiak eskuetan hartu bezain laster oihuak izan ziren nagusi "Libia" ontzian. Azken urteetan amestutako garaipena lortua zuten, etxean gainera. Bertan ziren Alex Udabe, Berdaitz Larrarte eta Iñaki Portularrume herri-tarrak. Arraunak gora! Zutik jarri zituzten aurretik gogor astindu behar izan zituzten arraunak.

"Ez da bakarria izango"

Berehala inguratu ziren Sanpedrotarra Arraun Elkarteko egoitzara. Han zituzten zain lehorrean gelditu ziren arraunlariak, tartean Urko Manterola, baita senitarteko, lagun eta zaletuak ere. "Ikurrina" busti gabe atera, trainerua egoitza aurrera eramanez ondoren, garaipena elkarrekin ospatzeko aukera izan zuten. "Ez da bakarria izango!" oihukatzen zuten batzuk, beste batzuk aurrez lortutako "ikurrina" lehen aldiz astintzen zuten bitartean.



ALEX UDABE, IGANDEAN IRABAZITAKO IKURRINA ASTINTZEN.

Hala ere, "majo" sufritu zuten aurretik KAE Ligako A multzoko lehenengo estropadan. Ekainean jokatu zen sailkapen estropadan lehen postua eskuratu ondoren, igandean aurrean ibiltzeko itxaropenarekin itsasoratu ziren. Erlojupeko estropada egin behar izan zuten 12 traineruek eta San Pedroko ontzia lehenengo txandan irten ziren 6 traineruen artean izan zen. Lehenengo txanda honetako ontzien artean denborarik onena egin zuen, baina oraindik ere beste sei taldek egin behar zuten beraien lana. Denbora horretan kirioak dantzan izan zituztela aitortu zuten ondoren herriko lau arraunlariak.

SAN PEDROKO LIBIA GARAILE

Traineruan ziren Berdaitz Larrarte, Alex Udabe eta Iñaki Portularrume usurbildarrak

Azkenean, inork ez zuen San Pedroko ontziaren denbora hobetu. 9 segundoko aldea lortu zuten 2. postua eskuratu zuen Lekeitioko Isuntza ontziarekiko eta gainontzekoak 15 segundotik gora utzi zituzten.

"Gogorra izan da" zioen Alex Udabek, izan ere, ia 800 metro gehiago egin behar izan zituzten estropada eremuaren neurketan izandako akats baten ondorioz.

Dena den, gehiegizko sufrimendu horrek bere saria izan zuen. Orain dela bi eta hiru urte arraunean hasitako jendearekin dabilta lehian, eta adi-tuek pixkanaka talde polita osatzen ari zirela esaten bazuten ere garaipenen bat falta zitzaientzen, eta igandean lortu zuten azkenean. San Pedron bertan ere ez zuten askorik espero. Arraunlariak goizean bertaratu zirenean kolore morerik ez omen zuten ikusten San Pedroko balkoietan, baina estropadaren ondoren ikurrina more asko omen zeuden.

Lehenengo garaipena eskuratu dute, bai, baina ez dira horrekin bakarrik konformatzen. Astelehenean Aitor Balda entrenatzaile berriaren aginduetara entrenatzera joan behar izan zuten berriz ere aurreko eguneko nekeak ahaztuta. Izan ere, larunbat honetan izango dute denboraldiko bigarren estropada Santurtziko uretan.

Agenda

Uztailak 15, larunbata

Etxebizitzetxei buruz udaletxe atarian ipini duten informazio-gunea uztailaren 15a arte izango da zabalik: astelehenetik ostiralera, eguerdikiko 12:00etatik 18:30era.

Uztailak 17, astelehena

21:00etan San Praixkuak antolatzen hasteko lehen bilera Aginagan, ohiko tokian.

KzGunea arratsaldeaz irekita

Uztailaren arratsaldeaz egongo da zabalik KzGunea. Dena den, uztailaren 25ean eta 31n itxita egongo da.

Musikaren txokoa



Doinu gazteak Etxeren eskutik

Etxe ezize-
n a r e n
atzean Iñaki
Etxezarraga aur-
kitu dugu, 21
urteko berrizta-
rra. Hainbat
urtetan Nabari
taldean aritu eta
gero, iaz bakarlari gisa hasi zen eta,
kontzertu gutxi batzuk emateaz gain,
Berrizko gaztetxeak antolatzen duen
Aldapa maketa leihaketan irabazlea
izan zen. Sari moduan Lorentzo



Recordsen 5 egunetarako grabaketa
muxu-truk eskaini zioten eta hantxe
grabatu zituen bere lehen lanean
bildu dituen 5 kantuak. Musikari
dagokionez erraz entzuteko pop rock
estiloko kantuak jorratzen ditu Etxek.
Abestiek gauza ugari buruz hitz egi-
ten dute, baina guztiek badute zerbait
komuna: bidaia. Etxek esperien-
tziadun musikariak nahi zituen alda-
menean. Eta horretan zorte bikaina
izan du, Lor taldeko Ramiro eta
Seiurte taldeko Jokin eta Iñaki lagun
izan baititu.

Dortoka bat azaldu da Puntapaxen

Jaieran, Santxabel bezperan hain zuzen, dorto-
ka hau agertu zen Puntapax 22-24 artean.
Udaltzaingoak jaso eta animalien babeslekura era-
man du. Zaurituta dago eta badirudi balkoi batetik
erori zela.

Dortokaren jabeek Aginagan dagoen Animalien
Babeslekuan aurkituko dute irudian ageri den dor-
toka.



Aldaketak

autobusaren ibilbidean

Usurbilgo Kale Nagusiko berritze-
lanak direla eta, EuskoTrenek
aldaketak egingo ditu uztailaren 12an,
13an eta 14an. Zumaia noranzkoan,
geraleku bakarra Atxegalde auzoan
egingo da. Donostia noranzkoan, ohiko
ibilbidea eta geraldak.

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU
© 943 69 68 52 · 620 800 186

ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak



EGUZKITZA, 4 USURBIL · 943 370 344

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobus
ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sus-
tapena, euskararen normalizazioa, urteko
egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki,
Fototeka, Plis, Plas, Txalo ta Jolas,
"Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak"...
Gure bazkideak harro egoteko moduan dira.
Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

Orain, bazkide egiten bazara, Usurbilgo
baserrien liburua jasoko duzu opari gisa.

Bazkide egin zaitez!

Noaua!!

36 euro urte osorako

Izena: _____
1.Abizena: _____
2.Abizena: _____
Helbidea: _____
Herria: _____
Telefonoa: _____
E-posta: _____
Kontu korrontea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharrak

ETXEBIZITZA

- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahiko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tf: 630 032 779.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Tata todoterreno bat saltzen dugu. 34.000 km, ondo zaindua eta aire egoituarekin. Prezioa: 7.000 euro. Negoziagarria. 676 636 038.
- 49 zm-tako Honada moto bat daukat salgai. Kondizio onetan eta modu onean. Interesatuak deitu 943364554 telefonora
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoterra oso onean. 667 172 010 (Jon).

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Udan umeak zaintzeko prest nago. Telefonoa: 687 651 605.
- 17 urteko mutil bat naiz eta ekainetik irailera bitartean Usurbil eta inguruetan gustora lan egingo nuke. Eskaintzen bat baduzu deitu 650491552 telefono zenbakira.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientzidunak LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrak ematen ditugu euskaraz zein gazteleraz. Interesatuak: 653711574.
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen

profesionala eskaintzen da. Telefono zenbakiak: 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- Irailetik aurrera pertsona bat behar dugu Zubietan haur bat zaindu eta goizez etxeko lanak egiteko. 943 36 71 29 / 660 779 160.
- Etxeko lanak goizez egiteko pertsona heldu bat behar dugu, esperientziduna eta euskalduna. 607233255.
- Oporraldian ordezkapen lanak egiteko neska bat behar dugu Laukote okidegian. Esperientzia izatea baloratuko da. Interesatuak deitu 943360980 telefonora.
- Arratsaldean etxeko lanak egiteko emakume baten bila gabiltza 645403905.
- Zarautzko malekoian udan lan egiteko zerbitzariak behar dira. 661972670.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Larunbatean Puntapax 22-24 artean dordoka bat agertu zen. Udaltzaingoak jaso eta animalien babeslekura eraman du.
- Terrenoa landatzeko erosi nahi dut, edifikatzeko ez. Tf: 943 36 11 09.
- Kotxe bat salgai, Opel Frontera. SS-AP, 3.000 euro. ITV eta bineta ordainduta. Telefonoa: 656 712 340 (Luis).
- Antxumeak eta ibiltzeko zaldi bat saltzen ditut. Interesatuak deitu: 657633461.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukutzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. E-maila: aprofit@euskalnet.net
- Telebista aldatzekotan bazara eta zer egin ez badakizu etxean daukazu arekin, gustora hartuko genuke. Deitu 943360321 telefonora eta geroni pasako ginatzeke jasotzera.
- Gazteentzat lokal bat alokairuan hartuko genuke. 667 694 049.
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa, prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosiko nuke. Tf. 605 72 48 24

Txerrimunik ordainetan !

Zorionak pottolis! Uztailaren 17an esku oso bat beteko dituzuelako muxu pilo bat lagun eta etxekoan partez!



Zorionak Uxue!
Datorren 18an egingo duzu zure lehengo urtebetzea, muxu handi bat aitatxo eta amaxoren partez.



JAIOTAKOAK

- Gorka Goikoetxea Lizeaga Ekainaren 14an.
- Eneko Matxain Lizaso Ekainaren 17an.
- Enara Larrañaga Goenaga Ekainaren 19an.
- Matxin Agirre Soto Ekainaren 29an.

Eguneko goardiako farmaziak

Uztailak 13, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Uztailak 14, ostirala
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Uztailak 15, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Uztailak 16, igandea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Uztailak 17, astelehena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Uztailak 18, asteartea
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Uztailak 19, asteazkena
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Uztailak 20, osteguna
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Uztailak 21, ostirala
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Uztailak 22, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Uztailak 23, igandea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,
Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).

2006ko egutegi osoa: www.noaua.com

www.noaua.com

Albisteak edizio jarraituan

Zorion-agurren tartea

Eztabaida foroak

Argazkitegia

Zerbitzuak

Eguraldia

Aldizkaria, on line

Agenda



Ikus itzazu jaietako irudiak Argazkitegian



Usurbildarrentzat eginiko webgunea



48,50€

3.urteurreneko nenu berezia San Inazio bezperan

Bazkaria.

Bakailu entsalada

Ontto freskoak plantxan

Arkumea ensaladarekin

Tarta helatuarekin eta Cava

Edariak eta Cafea

Musika.

Kupela taldea 17etatik 20etara.

Gutxituen BAZKARIA

uztailak 21 ostirala

Festa, opariak ...

Eguneroko menua.

Astearte-ostiral gaua barne.

Asteburuko menu berezia

Arkume eta txerrikumearekin.

25€ eta 30€

Olarrondo Jatetxea

5 zenbakia. USURBIL

☎ 943 360 376